

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

166/2025 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa. 2025eko ekitaldian arte eszenikoetan eta musikaletan prestakuntza-ekintzak egiteko laguntzen deialdi publikoa onartzea

Bere eskumenen esparruan, eta arte eszenikoen eta musikalen arloetan gazteen garapena eta prestakuntza sustatzeko, Kultura eta Kirol Sailak urtero egiten du laguntzen deialdi publikoa.

Ekimen horri eustea beharrezkotzat jo da, eta nahitaezko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2025eko ekitaldian arte eszenikoetan eta musikaletan prestakuntza-ekintzak egiteko laguntzen deialdi publikoa onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. Deialdiaren eskabide-eredua onartzea (foru agindu honen II. eranskina).

Hirugarrena. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautzen da (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.). Dekretu horren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onartu ziren (martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen), bai eta ebazpen honen eranskinean xedatutakoaren arabera ere.

Laugarrena. 25.000,00 euro kontsignatzea, laguntzen gehieneko zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko Gastuen Aurrekontuko 70105. G/334700/48000702 partidaren kargura («Prestakuntza eta sorkuntza artistikorako beka»).

Bosgarrena. Ebazpenak sei hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta eskabideari buruzko berariazko ebazpenik jaso ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, nahiz eta ondoren ebazpena eman daitekeen.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaleei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 30a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I. ERANSKINA**ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALETAN PRESTAKUNTZA-
EKINTZAK EGITEKO LAGUNTZEN 2025EKO DEIALDIA****1.artikulua. Xedea eta helburua**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea pertsona fisikoei, arte eszeniko (antzerkia, zirkua, mimoa eta antzeko diziplinak) eta musikalen arloetako banakako espezializazio trebakuntza sustatzeko, hain zuzen toki hauetan egiten dena: unibertsitateak, goi eskolak, nazioarteko eskolak, goi mailako kontserbatorioak, dantza eskolak, antzerki eskolak, zirkuko eskolak eta, oro har, artearen arloko trebakuntza zentroak, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo daudenak.

Berariaz kanpoan uzten dira oinarritzko prestakuntzako ikasketa arautuei lotutako proiektuak edo eszenaratzea edo muntaketa dakartenak.

Deialdia bat dator Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) xedatutakoarekin. Dekretu hori Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zenbakia).

2.artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak ezarritako balioespen irizpideen arabera alderatuko dira, eskaeren arteko hurrenkera ezartzeko. Espezialitate bakoitzean balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

3.artikulua. Aurrekontu egozpena

1. Laguntza hauek emateko aurrekontu muga 25.000,00 eurokoa da, gastu hori babesten duen aurrekontu-partida hauxe da: 70105. G/334700/48000702 "Bekak: arte trebakuntza eta sorkuntza", Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastuen aurrekontukoa.

2. Aurrekontu-muga hori hiru espezialitatetan banatuko da, honela:

- a) Formazioak Musikan eta Kantuan: 15.000,00 euro.
- b) Formazioak Arte Eszenikoetan (antzerkia, zirkua eta antzeko diziplinak): 5.000,00 euro.
- c) Formazioak Dantzan: 5.000,00 euro.

Oinarri orokor arautzaileen 7.1 apartatua betez (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua), funtsak modalitateen artean banatu ahal izango dira, betiere prestakuntza-mota bakoitzari esleitutako kopuruaren muga eta deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

4.artikulua. Laguntza motak eta gehieneko zenbatekoak

Deialdi honek laguntza mota hauek hartzen ditu barnean, zenbatekoari eta gauzatze tokiari dagokienez:

- Atzerrian espezializatzeko laguntza: 5.000,00 euro gehienez.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eta Estatuan espezializatzeko laguntza: 3.000,00 euro, gehienez.

Laguntzak 250 ordutik gorako iraupena duten prestakuntza espezializatuko proiektuei emango zaizkie. Ordu-kopuru hori 2025. urtearen barruan egin beharko da.

5.artikulua. Onuradunak eta baldintzak

Honako ezaugarri hauek dituzten pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan:

- 18 urte edo gehiago izatea, 2025eko abenduaren 31n.
- 2025eko urtarrilaren 1ean 30 urte beteta ez izatea.
- 2025eko urtarrilaren 1ean, azken bi urteetan Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko enklabe edozein udalerritan etenik gabe erroldatuta egon izana, laguntzaren xede den prestakuntza egiten den lekura aldatzeagatik erroldan baja ematea izan ezik, eta egoera hori agiri bidez justifikatu beharko da.

Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan aurretik espezialitate bererako bi aldiz jaso dituzten pertsonak.

Halaber, ezin daitezke laguntza hauen onuradun izan Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 12.2. artikuluan jasotako egoeretako ren batean daudenak.

6.artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten pertsonak, eskaeraz gain, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Laguntza eskatzen duen pertsonaren curriculum vitae-a, eskaeraren xede den jakintza arloko trebakuntza eta espezializazioari eta esperientziari buruzko egiaztagiri egokiak erantsita.

Zerrendatu bai baina agiririk erantsi ez zaien ekintzak ez dira kontuan hartuko.

b) Garatu beharreko trebakuntza proiektuaren azalpen memoria.

c) Laguntza eskaeraren xedea den trebakuntzan onartua izan dela dioen ziurtagiria.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea eta epea

1. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsonak honako modu hauetako batean aurkeztu ahal izango dute eskabidea:

a. Bitarteko elektronikoak erabiliz, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen inprimakia betez. Horretarako, aldeztu aurretik, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

b. Aurrez aurre Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia Plaza, 5, behe) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste moduetan.

Atal honetan jasotako moduan aurkeztutako eskabideak deialdi honen II. eranskinetako eredura egokitu beharko dira.

2. Onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak. Arabako Foru Aldundiak ofizioz egiaztatuko du pertsonak baldintza hori betetzen dutela, bai eta eskatzailearen nortasun eta errolda datuak ere. Egiaztapen horien aurka eginez gero, egitate horien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetako hamabigarrenean).

3. Eskaerak aurkezteko 15 egun balioduneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

4. Eskakerak forma egokian aurkeztu ezean, edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari 10 eguneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskaerari uko egiten diola iritziko da, eta artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

5. Pertsona berak deialdi honetan bideratutako laguntza bakarra eskatu ahal izango du.

8. artikulua. Prozedura izapidetzea eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Hauek izango dira balioespen irizpideak bi espezialitateetarako:

a) Eskatzailearen curriculum vitae: gehienez 70 puntu lortu ahalko ditu, honela banatuta:

— 30 puntu, gehienez ere: laguntza eskaeraren xedea den arloko trebakuntzaren balioespena.

— 40 puntu, gehienez ere: laguntza eskaeraren xedea den arloko esperientziaren eta hartan egindako jardueren balioespena.

b) Egingai den proiektuaren interesa: 30 puntu emango dira, gehienez ere.

Dirulaguntza lortzeko gutxieneko puntuazioa 40 puntukoa izango da.

9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balioespen batzorde batek egingo du laguntzak emateko proposamena. Batzorde horren osakeran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua hartuko da kontuan. Honako hauek osatuko dute batzordea:

— Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

— Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari.

— Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona, hitza izango du, baina botorik ez.

2. Eskabideak balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera ebaluatzeko, balioespen batzordean aditu profesional independenteek parte hartu ahalko dute. Aditu horiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adieraziz: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio kausetan ez daudela sartuta, konfidentzialtasuna bermatzen dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko proiektuen balioespena ez den beste helburu baterako, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera, eta, ebazpen proposamena eman ondoren, espedienteetako dokumentazio guztia suntsitu egingo dutela, edo jatorrizkoak badira, prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela. Izendapen horiek Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errefusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

3. Batzorde horrek, aurkeztutako eskaeren balioespena ikusita, beka hauek guztiz edo partzialki esleitu gabe uztea proposa dezake.

4. Balioespen batzordeak txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien zerrenda ordenatua. Zerrenda hori erabili ahal izango da, baldin eta onuradunetako batek hasieran uko egiten badio, laguntza onartzen ez badu edo emandako laguntza justifikatzen ez badu.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango dute azken hiru ekitaldietan sail honen laguntzarik jaso ez duten pertsonak aurkeztutako eskaerak. Berdinketak jarraitzen badu, honako irizpide hauen arabera lehenetsiko dira eskabideak, hurrenkera honetan:

- Interesdunaren curriculumaren balorazioan puntuazio handiagoa izatea.
- Eskatzaileak emakumeak izatea.

Espezialitate bakoitzaren barruan, laguntza jaso dezakeen azken eskatzailea ezin bada diruz lagundu bere gehieneko zenbatekoan, behar besteko diru-esleipenik ez duelako, espezialitate horretan esleiri daitekeen gainerako zenbateko ekonomikoarekin lagunduko da.

Laguntza ordezkot bati esleitu behar bazaio, espezialitate bakoitzeko hurrengo eskatzailea izendatuko da, epaimahaiak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera. Hori egingo da, baita ere, eskatzaileak espezialitate desberdinetako beste eskatzaile batzuek baino puntuazio txikiagoa lortu badu, puntuazioak modu independentean hartzen baitira aintzat espezialitate bakoitzaren barruan.

Modalitatearen batean eskatzailerik ez badago edo batek ere ez badu gaintitzen laguntza lortzeko behar den gutxieneko puntuazioa, epaimahaiak erabaki arrazoitu bat hartuko du laguntzak emateko ordenari buruz.

5. Deialdi honetako beken emakida Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez ebatziko da, ikusita zer dioen balioespen batzordearen txostenak, eta onuradunei haren berri emango zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Beka eskaerak gehienez ere sei hilabeteko epean ebatziko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta eskaerari buruzko esanbidezko ebazpenik eman ez bada, uler tuko da eskaerari ezezkoa eman zaiola, nahiz eta ondoren ebazpena eman ahal izango den.

10. artikulua. Laguntza ordaintzea

1. Laguntzari dagokion PFEZaren atxikipena egingo zaio, eta ordainketa honela egingo da:

- a) Zenbatekoaren ehuneko 70a, laguntza ematen den unetik aurrera.
- b) Gainerako ehuneko 30a, gauzatutako proiektuari buruzko memoria aurkezten denean.

2. Proiektuaren zuzendaritzaz arduratzen den pertsonak edo erakundeak emandako ebaluazio-ziurtagiria aldekoa ez bada, ez da bigarren entrega egingo, eta lehenengo entregan jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, eranskin honen 13. artikuluen arabera.

11. artikulua. Laguntzen onuradunen betebeharrak

Beka hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar deialdi honetan ezartzen diren arauak espresuki eta baldintzarik gabe onartzen direla. Horrez gain, hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 13. artikuluan oro har ezarritakoak.

b) Berariaz jakinarazi behar da emandako laguntza onartzen dela, hura emateko jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan laguntza onartzen ez bada, laguntzari uko egin zaiola ulertuko da.

c) 2025eko abenduaren 9ra arteko epea izango dute egindako lanari buruzko amaierako memoria aurkezteko. Horren barruan, besteak beste, proiektuaren zuzendaritzaren ardura duen pertsonak edo erakundeak emandako asistentzia ziurtagiria jaso beharko da, proiektuak irauten duen ordu kopurua adierazten duena, eta baita pertsona edo erakunde horrek emandako aldeko ebaluazio ziurtagiri bat ere.

d) Egindako jardueri buruzko datuak eta agiriak eman behar dituzte, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatzen dienean. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere emango dute.

e) Onuradun guztiek konpromisoa hartzen dute bekaren gaiari buruzko kontzertu, ekitaldi eta abarretan profesionalki parte hartzeko, gutxienez behin eta Foru Aldundiarekin adostu ondoren, horregatik inolako kontraprestaziorik jaso gabe.

12. artikulua. Bateriaezintasunak

Deialdi honetako laguntzak bateragarriak dira proiektu bererako jaso daitezkeen beste batzuekin. Dena den, laguntza hau eman aurretik, inguruabar horien berri eman eta berariazko baimena eskatu behar zaio Kultura Zuzendaritzari.

Bekaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

13. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren aurreikusten duenarekin bat etorritik egingo da.

14. artikulua. Interpretazioa

Eranskin honetan xedatutakoaren interpretatzerakoan zalantzaren bat sortuz gero, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebaziko du.

15. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, www.araba.eus eta www.kulturaraba.eus web orrien bidez ere za balduko da.

16. artikulua. Azken klausula

Deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie:

- Urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzena.
- Urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Araua, Aurrekontuei buruzkoa.
- Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua, indarrean dagoena.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 3/2007 Lege Organikoa, Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Aplikatu beharreko araudi guztia.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Arte Eszeniko eta Musikaletan prestakuntza-ekintzak egiteko laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales	2025
	II. Eranskina ■ Anexo II	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN DNI
 ☐ AIZ NIE
 ☐ Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea Mujer

☐ Gizona Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Jaiotze data ■ Fecha nacimiento

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Bete, hala badagokio ■ Rellenar si procede)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN DNI
 ☐ AIZ NIE
 ☐ Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea Mujer

☐ Gizona Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales	2025
	II. ERANSKINA ■ ANEXO II	

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS (Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Complimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO		
IBAN		SWIFT

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA	ESKATZAILEAK bete behar du ■ A rellenar por la persona SOLICITANTE
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)	ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT ■ INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:
	☐ Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren Hirugarren moduan ■ Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava.
	☐ Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan ■ Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.
Kontu korrontearen eskatzaileak doakion hirugarrena bera behar du izan ■ La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la persona solicitante	

ESKATZEN DUEN ARLO ETA LAGUNTZA MOTA (Adierazi X batez) ■ AREA Y MODALIDAD DE AYUDA QUE SOLICITA (indicar con una X)

Arte Eszenikoen Arloa ■ Área Artes Escénicas	Adierazi laguntza mota ■ Indicar modalidad:	
Musika-arten Arloa ■ Área Artes Musicales	Adierazi laguntza mota ■ Indicar modalidad:	
Dantza Arloa ■ Área Danza	Adierazi laguntza mota ■ Indicar modalidad:	

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN XEDE DEN PRESTAKUNTA ESPEZIALIZATUA ■ FORMACIÓN ESPECIALIZADA PARA LA QUE SE SOLICITA AYUDA

Laguntzaren xede den prestakuntza ■ Formación para la que se solicita la ayuda	
Trebakuntza-zentroa ■ Centro de formación	
Hiria ■ Ciudad	
Herrialdea ■ País	

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales	2025
	II. ERANSKINA ■ ANEXO II	

ESKATUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUK ■ OTRAS AYUDAS SOLICITADAS

Entitatea ■ Entidad	Kontzeptua ■ Concepto	Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado	Emandako zenbatekoa ■ Importe concedido

PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■ DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA

Eskatzailearen betekizunak betetzeari buruzko adierazpena ■ Declaración del cumplimiento de requisitos del solicitante:

- ☐ **Pertsona eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdian zerrendatutako baldintzak.** ■ La persona solicitante cumple los requisitos enumerados en la convocatoria para ser beneficiaria de estas ayudas.
- ☐ **Ez du zehapen administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).** ■ No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).
- ☐ **Ez du konkurtso-deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku-hartze judizialaren mende edo ez dago esku-hartze judizialaren mende Konkurtso Legearen arabera desgaitu bada, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.** ■ No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
- ☐ **Ez du ekarri, errudun deklaraturik izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.** ■ No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- ☐ **Pertsona fisikoa ez dago bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.** ■ No está incurso la persona física en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.
- ☐ **Egunean ditu diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak.** ■ Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
- ☐ **Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere.** ■ Son ciertos y completos todos los datos de la presente solicitud, así como toda la documentación presentada.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales II. ERANSKINA ■ ANEXO II	2025
--	---	-------------

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo Administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

KULTURA ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:

(**Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda**)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: ■ De acuerdo con la normativa aplicable, la Diputación Foral de Álava comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Nortasun datuak kontsultatzea.** ■ Consulta de datos de identidad.
- **Erroldako datuak kontsultatzea.** ■ Consulta de datos de padrón.
- **Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

☐ **Arabako Foru Aldundiko Aldundiak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio por parte de la Diputación Foral de Álava.

Aurka eginez gero, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu ■ En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos de cumplir los requisitos establecidos en la convocatoria.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzarako laguntza eskaera Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales 2025 II. ERANSKINA ■ ANEXO II
---	--

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA ■ INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "Kultura sustapena" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kultura jarduera sustatzea Arabako Lurralde Historikoan eta "Hirugarrenen eta interesdunen" erregistroan, aurrekontua gauzatzeko edo aurrekontuz kanpoko eragiketarako, gastuak zein sarrerak, izapidetzea helburu duenak.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "Promoción cultural" para la finalidad de promocionar la actividad cultural en el Territorio Histórico de Álava y en el de "Terceros e interesados" cuya finalidad es la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como ingresos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordetzariaren sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- ☐ Curriculum eta laguntza eskatuko den arloan egindako ikasketen egiaztagirak bai eta espezializazio ikasketenak ere. ■ Currículum Vitae y documentos acreditativos relativos a la formación y especialización en la disciplina objeto de la solicitud.
- ☐ Egin nahi den proiektuaren azalpen memoria. ■ Memoria explicativa del proyecto formativo.
- ☐ Laguntzaren xede den prestakuntzan onartu izanaren ziurtagiria. ■ Certificado de admisión en la formación para la que se solicita la ayuda.
- ☐ Otra documentación: (especificar):